



Mendaroko **UDAL** **BULETINA**

2026ko maiatza
(más abajo en castellano)



Aurkibidea

Mendarok 2026ko Trinitate Jaiak ospatuko ditu maiatzaren 29tik ekainaren 1era.....3-4

Antolakuntzak gogorarazi du ez dela gertatu litezkeen ezbeharren erantzule egingo

Abian da berriro ‘Egin nirekin ere euskaraz!’ kanpaina.....5-6

Kanpaina honen abiapuntuan “Kulturartekotasuna udalerrri euskaldunetan” egitasmoa dago

Mendaroko hiri-arboladia kudeatzeko eta eraldatzeko irizpideak finkatuko ditu udalak7

Helburu nagusia herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, arboladiari funtzio zehatzak emanez, ongizatea eta ingurumen-osasuna sustatzeko bidean


Joxe Mari eta Maritxu izango dira erraldoien izenak.....8

Parte hartu duten guztientzat, parte hartze oroigarria dago, jasotzera liburutegira etorri behar da

Mendaroko Udalak, Uemak antolatutako Bertatik Bertara kanpainaren barruan informazio-orria, paperezko manteltxoak eta kartelak banatuko ditu denda, taberna eta ostatuetan.....9

*Mendaroko Udalak aurten ere bat egin du UEMAK (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak) antolatu duen **Bertatik Bertara** kanpainarekin*

Eskolako baratzea martxan dago.....10



Mendarok 2026ko Trinitate Jaiak ospatuko ditu maiatzaren 29tik ekainaren 1era

Antolakuntzak gogorarazi du ez dela gertatu litezkeen ezbeharren erantzule egingo

Mendaroko Udalak jakinarazi du 2026ko Trinitate Jaiak maiatzaren 29tik ekainaren 1era bitartean ospatuko direla, kultur jardueraz, musikaz, herri kirolez eta ohiko ekitaldiz osatutako egitarauarekin.

Jaiak maiatzaren 29an, ostiralean, hasiko dira, 19:00etan, Bizi Poza txarangaren kalejirarekin, jaiari hasiera emateko.

Maiatzaren 30ean, larunbatean, Trinitate bezperan jarduerak 17:00etan hasiko dira zuhaitz jasotzearekin, ondoren kanpai errepika eta etxapilluak izango direlarik.

Maiatzaren 31n, igandean, Trinitate egunean egitaraua 10:30ean txistularien kalejirarekin hasiko da. 12:00etan, meza santua ospatuko da, Mendaroko eta Itziarko abesbatzekin.

Ondoren, 12:45ean, Euskal Herri Kirolak izango dira. Bertan, Goizeder Abendibar harri jasotzen izango da, eta Arkaitz Etxebeste eta Ugaitz Mugerza ariko dira aizkoran. Jarraian, Mendaroko trikitilariak izango dira.

Jaiak ekainaren 1ean, astelehenean, amaituko dira, *Trinitate Txiki* egunean. 11:00etan, meza egingo da Trinitateko basilikan. Ondoren, 12:00etan, ikastolako haurren bertso saioa izango da, eta jarraian Saioa Lizarralde eta Lean Esnaola trikitilariak arituko dira.

Antolakuntzak gogorarazi du ez dela gertatu litezkeen ezbeharren erantzule egingo.



Abian da berriro ‘Egin nirekin ere euskaraz!’ kanpaina

Kanpaina honen abiapuntuan “Kulturartekotasuna udalerrri euskaldunetan” egitasmoa dago

Hirugarren urtea du UEMAren kanpaina honek, eta Euskal Herrira etorri diren eta euskara ikasi duten edota ikasten ari diren euskal herritarrei aitortza egin nahi die aurten, batetik edo bestetik etorri arren denak bertakoak eta euskaldunak direla nabarmenduz.

Abiapuntua: kulturartekotasuna udalerrri euskaldunetan

Kanpaina honen abiapuntuan *Kulturartekotasuna udalerrri euskaldunetan* egitasmoa dago. Kulturartekotasuna lantzeko egitasmoa Zaldibian abiarazi zuen UEMAk lehenik, HUHEZIrekin eta Zaldibiako hainbat eragilerekin batera, eta azken urteotan 29 herritara zabaldu dute UEMAk, udalek eta hainbat eragilek.

Herri horietako zenbaitek kezka adierazi zuten, lanketa handia egin arren aurreiritziek indar handia dutelako oraindik, eta beste herrialdeetatik etorritakoei askotan erdaraz egiten dietelako herritarrek, euskaraz jakin arren. Horren aurrean, euskarak jatorri eta kolore asko dituela eta azalaren kolorea edota hiztunaren jatorria askotarikoa izan arren herritar horiek ere euskaldunak direla nabarmendu nahi du ‘Egin nirekin ere euskaraz!’ kanpainak.

Lehen aldiz 2023ko azaroan ekin zion UEMAk kanpainari, euskaldun arrazializatuen inguruko aurreiritziak gainditzeko asmoarekin. Bateko eta besteko haurrak eta nerabeak izan ziren hasieran kanpainaren irudia, eta ekimenak oihartzun ederra izan zuen sareetan zein hedabideetan. Orduan, beste herrialdeetatik etorri eta ostalaritzan eta merkataritzan lanean ari diren euskaldunak ikusarazteko beharra ere nabarmendu zioten hainbat udalek UEMArri, eta horiek izan ziren kanpainaren bigarren aldiaren protagonistak, iaz.

Erdaraz hasten zaizkie herritar asko, kanpokoak direla adieraziz zeharka

Euskaldunak dira Karelys, Dahye, Cauria, Aurora, Marta, Hamida, Bonavie, John Bryan, Marianela, Paula, Alejandra eta Loli. Kuban, Hego Korean, Saharan, Nikaraguan, Etiopian, Aljerian, Filipinetan, Kolonbian, Ekuadorren, Portugalen, Argentinan edota Hondurasen jaio dira, besteak beste. Bizi, berriz, Lekunberri, Lezo, Igorre, Leitza, Hondarribia, Zumaia, Ikastegieta, Segura, Arantza, Ondarroa, Basaburua eta Gatican bizi dira, baina gainerako udalerrri euskaldunetan ere hamaika Karelys, Dahye edo Bonavie ditugu gure artean, zorionez.

Gaztelera, hassaniera, arabiera, koreeera, portugesa edo amharera jaso dute etxean, besteak beste. Euskara, beraz, ez da beraien lehen hizkuntza, baina euskara ikasi dute eta ikasten ari dira, eta euskaraz aritu nahi dute herritarrekin.

Askotan, ordea, azalaren koloreagatik, aurreiritziengatik edota auskalo zergatik erdaraz hitz egiten diete gainerako herritarrek. Badakite, ordea, euskara dela zubirik ederrena, eta euskara ukatzen dieten bakoitzean zubia ere ukatzen dietela sentitzen dute. Kanpokoak direla esaten zaiela zeharka. Horregatik, beraiei ere euskaraz egitea nahi dute. Gustatzen zaielako, eta euskaldunak ere sentitzen direlako.



Mendaroko hiri-arboladia kudeatzeko eta eraldatzeko irizpideak finkatuko ditu udalak

Helburu nagusia herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, arboladiari funtzio zehatzak emanez, ongizatea eta ingurumen-osasuna sustatzeko bidean

Mendaroko Udalak azterlan bat eskatu dio Arbolinnova enpresa espezializatuari, herriko hiri-paisaia kudeatzeko eta eraldatzeko irizpideak zehazteko helburuarekin. Lan hori Urban forest (hiri-basoa) Europako estandarretan oinarrituko da.

Europako estandar horien arabera, hiri-basoak bizi-kalitatea hobetzeko helburu zehatzak ditu:

1. Erregulazio termikoa: "Bero-uharte" efektua murrizten du, herriko tenperatura 2 eta 8 gradu artean jaitsiz.
2. Airearen kalitatea: Kutsatzaileak eta partikula finak iragazten ditu, araztegi natural gisa jokatuz.
3. Osasun mentala: Klima-babeslekuak eta erlaxatzeko guneak eskaintzen ditu, biztanleriaren estresa gutxituz.
4. Biodibertsitatea: Hegazti eta intsektuentzako habitatak sortzen ditu, hiri-ekosistema orekatuz.

Eredu berri honen arabera, zuhaitzak apaingarri soil izateari utzi eta tresna estrategiko bihurtuko dira. Helburu nagusia herritarren bizi-kalitatea hobetzea da, arboladiari funtzio zehatzak emanez, ongizatea eta ingurumen-osasuna sustatzeko bidean.



Joxe Mari eta Maritxu izango dira erraldoien izenak

Parte hartu duten guztientzat, parte hartze oroigarria dago, jasotzera liburutegira etorri behar da

Erraldoien izen aukeraketan honako emaitza atera da (izen proposamen aukeraketa).

MUTILARENTZAKO:

EUXEBIO: 49

JOXEPE: 24

JOXE RAMON: 28

JOXE MARI: 54

NESKARENTZAKO:

INAXI:20

XIXILI:28

KONTXEZI:8

MARITXU: 99

155 lagunek bozkatu dute, aurretik, gehien proposatutako bakoitzetik 4 izenak.

Izen proposamenean 167 lagunek hartu zuten parte.

Parte hartu duten guztientzat, parte hartze oroigarria dago, jasotzera liburutegira joan behar da.

**Gure herria,
gure hizkuntza,
gure arnasa.**

El nostre poble, la nostra llengua, la nostra gent.
Our people, our language, our heartbeat.
Os nossos pobos, a nosa lingua, a nosa xente.
Nuestro pueblo, nuestra lengua, nuestros latidos.
Notre peuple, notre langue, notre cœur.

**BERTATIK
BERTARA**

U-MA
UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

Euskara
Català
English
Castellano
Français
Galego

Scan the QR code
and practice
the basque language!

Mendaroko Udalak, Uemak antolatutako Bertatik Bertara kanpainaren barruan informazio-orria, paperezko manteltxoak eta kartelak banatuko ditu denda, taberna eta ostatuetan

*Mendaroko Udalak aurten ere bat egin du UEMAk (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak) antolatu duen **Bertatik Bertara** kanpainarekin*

Kanpaina honen bidez **bi helburu** nagusi bultzatu nahi dira:

- Herriko **ostalariak, tabernariak eta bezeroak euskara gehiago erabiltzera animatu** nahi ditugu.
- Herrira etortzen diren **bisitariak euskaraz goatzera animatu** nahi ditugu.

Zuk eskaintzen duzun zerbitzua euskararen erakusleiho ere bada neurri handi batean eta, horregatik, egitasmo honetan parte hartzera animatu nahi zaitugu. Eta, horretarako, **zer egin dezakegun?**

- Jatortuak ematerako orduan kanpainarako prestatu diren paperezko **mahai-gaineko (manteltxo) indibidualak erabili.**
- Zure establezimenduan erabiltzen dituzun hizkuntza paisaiako elementuetan (**kartelak, menua, ordutegia, musika...**) euskara erabili.
- Zerbitzua eskaintzerakoan, ahal den neurrian, **ahoz ere euskararen erabilera bultzatu.**

Besterik gabe, eskerrik asko egitasmo honetan bidelagun izatearren.



Eskolako baratzea martxan dago

Hona hemen orain arte egindako lanak:

| EGUNA | TALDEA | ZEREGINA |
|--------------------|--------|--|
| 2026-03-09 (14:30) | LH2 | Lurra ongarritu, harrotu. |
| 2026-03-13 (11:30) | LH3 | Lurra harrotu, tipula gorriak, zuriak eta letxugak landatu, usaindun loreak landatu, mailukiak birlandatu... |
| 2026-03-13 (14:30) | LH1 | Lurra harrotu, usaindun loreak landatu eta patata erein. |
| 2026-03-18 (14:30) | HH5 | Ilar haziak erein, mailukiak birlandatu eta limoiondoak ongarritu. |
| 2026-03-23 (14:30) | HH4 | Azenarioak, perrexila eta eguzkiloak pipak erein. Kumquat-a lurrean landatu. |
| 2026-04-15 (14:30) | HH3 | Artoa erein eta hazitegian ernetako ilar landareak landatu. |
| 2026-04-22 (14:30) | LH4B | Artoa erein hazitegian. Lurra harrotu, bainak landatu eta kalabaza erein. |



BOLETÍN MUNICIPAL

de Mendaro

Mayo de 2026

Índice

Mendaro celebrará las fiestas de Trinidad 2026 del 29 de mayo al 1 de junio.....13-14

Desde la organización recuerdan que no se hacen responsables de posibles imprevistos que puedan surgir

La campaña ‘Egin nirekin ere euskaraz!’ vuelve a ponerse en marcha.....15-16

Esta campaña tiene su origen en el proyecto "Interculturalidad en municipios euskaldunes"

El ayuntamiento de Mendaro definirá los criterios para la gestión y transformación de su arbolado urbano.....17

El objetivo principal es mejorar la calidad de vida de la ciudadanía, otorgando al arbolado funciones claras para promover el bienestar y la salud ambiental


Joxe Mari y Maritxu serán los nombres de los gigantes.....18-19

Para todas las personas que han participado, hay un regalo por haber participado, hay que ir a recogerlo a la biblioteca

El Ayuntamiento de Mendaro distribuirá folletos informativos, manteles de papel y carteles en comercios, bares y establecimientos hosteleros dentro de la campaña Bertatik Bertara, organizada por UEMA.....20

El Ayuntamiento de Mendaro se ha adherido un año más a la campaña Bertatik Bertara organizada por UEMA (Mancomunidad de Municipios Euskaldunes)

El huerto escolar ya está en marcha.....21



Mendaro celebrará las fiestas de Trinidad 2026 del 29 de mayo al 1 de junio

Desde la organización recuerdan que no se hacen responsables de posibles imprevistos que puedan surgir

El Ayuntamiento de Mendaro informa de la programación de las Fiestas de Trinidad 2026, que se celebrarán entre el 29 de mayo y el 1 de junio, con actividades culturales, música, deporte rural vasco y actos tradicionales en torno a la festividad.

La programación arrancará el viernes 29 de mayo, a las 19:00 horas, con un pasacalles junto a Bizi Poza Txaranga, que dará comienzo oficial a las fiestas.

El sábado 30 de mayo, víspera de Trinidad (*Trinidade Bezpera*), las actividades comenzarán a las 17:00 horas con la izada del árbol, seguida del repicar de campanas y cohetes.

El domingo 31 de mayo, día grande de Trinidad (*Trinidade Eguna*), la jornada comenzará a las 10:30 horas con un pasacalles de txistularis. A las 12:00 horas tendrá lugar la misa solemne, con la participación de los coros de Mendaro e Itziar.

A continuación, a las 12:45 horas, se celebrarán exhibiciones de deporte rural vasco (*Euskal Herri Kirolak*), entre ellas la modalidad de levantamiento de piedra, con la participación de Goizeder Abendibar, así como Arkaitz Etxebeste y Ugaitz Mugerza cortando troncos. Posteriormente, la jornada continuará con la actuación de los trikitilaris de Mendaro.

Las fiestas concluirán el lunes 1 de junio, jornada de *Trinidade Txiki*, con una misa a las 11:00 horas en la ermita de Trinidad. A las 12:00 horas, el alumnado de la ikastola ofrecerá una sesión de bertsolaritza infantil. Posteriormente, actuarán los trikitilaris Saioa Lizarralde y Lean Esnaola.

Desde la organización recuerdan que no se hacen responsables de posibles imprevistos que puedan surgir.



La campaña ‘Egin nirekin ere euskaraz!’ vuelve a ponerse en marcha

Esta campaña tiene su origen en el proyecto “Interculturalidad en municipios euskaldunes”

La campaña de la UEMA cumple este año su tercera edición y quiere reconocer a las personas que han llegado a Euskal Herria y han aprendido euskera o lo están aprendiendo, subrayando que, vengan de donde vengan, todas son personas del lugar y euskaldunes.

Punto de partida: la interculturalidad en municipios euskaldunes

Esta campaña nace del proyecto *Interculturalidad en municipios euskaldunes*. UEMA puso en marcha inicialmente este proyecto en Zaldibia, junto con HUHEZI y diversos agentes locales, y en los últimos años lo ha extendido a 29 municipios, de la mano de ayuntamientos y diferentes agentes.

Algunos de estos municipios mostraron su preocupación porque, a pesar del importante trabajo realizado, los prejuicios siguen teniendo mucha fuerza y, a menudo, la ciudadanía se dirige en castellano a las personas llegadas de otros países, aunque sepan euskera. Ante esta situación, la campaña **‘Egin nirekin ere euskaraz!’** quiere poner de relieve que el euskera tiene muchos orígenes y muchos colores, y que, aunque el color de piel o el origen de quienes lo hablan sea diverso, estas personas también son euskaldunes.

UEMA puso en marcha la campaña por primera vez en noviembre de 2023, con el objetivo de superar los prejuicios en torno a las personas euskaldunes racializadas. En un primer momento, la imagen de la campaña fueron niños, niñas y adolescentes de diferentes orígenes, y la iniciativa tuvo una gran repercusión tanto en redes sociales

como en medios de comunicación. Entonces, varios ayuntamientos trasladaron también a UEMA la necesidad de visibilizar a personas euskaldunes llegadas de otros países que trabajan en la hostelería y el comercio, quienes fueron las protagonistas de la segunda edición de la campaña, el pasado año.

Muchas personas les hablan en castellano, insinuando indirectamente que son de fuera

Karelys, Dahye, Cauria, Aurora, Marta, Hamida, Bonavie, John Bryan, Marianela, Paula, Alejandra y Loli son euskaldunes. Han nacido, entre otros lugares, en Cuba, Corea del Sur, el Sáhara, Nicaragua, Etiopía, Argelia, Filipinas, Colombia, Ecuador, Portugal, Argentina o Honduras. Actualmente viven en Lekunberri, Lezo, Igorre, Leitza, Hondarribia, Zumaia, Ikaztegieta, Segura, Arantza, Ondarroa, Basaburua y Gatika, aunque, afortunadamente, también hay muchos otros Karelys, Dahye o Bonavie en el resto de municipios euskaldunes.

Entre las lenguas que han recibido en casa se encuentran el castellano, el hasaní, el árabe, el coreano, el portugués o el amhárico. El euskera, por tanto, no es su primera lengua, pero lo han aprendido o lo están aprendiendo, y quieren relacionarse en euskera con el resto de la ciudadanía.

Sin embargo, muchas veces, debido al color de piel, a prejuicios o quién sabe por qué motivo, otras personas se dirigen a ellas en castellano. Aun así, saben que el euskera es el puente más hermoso, y sienten que, cada vez que se les niega el euskera, también se les niega ese puente. Como si indirectamente se les estuviera diciendo que son de fuera. Por eso, quieren que también se les hable en euskera. Porque les gusta y porque también se sienten euskaldunes.



El ayuntamiento de Mendaro definirá los criterios para la gestión y transformación de su arbolado urbano

El objetivo principal es mejorar la calidad de vida de la ciudadanía, otorgando al arbolado funciones claras para promover el bienestar y la salud ambiental

El Ayuntamiento de Mendaro ha solicitado a la empresa especializada Arbolinnova un estudio con el objetivo de fijar los criterios para la gestión y transformación del paisaje urbano del municipio. Este trabajo se basará en los estándares europeos de Urban forest (bosque urbano).

Según los estándares europeos el bosque urbano busca objetivos específicos para mejorar la calidad de vida:

1. Regulación térmica: Reduce el efecto de "isla de calor", bajando la temperatura de la ciudad entre 2 y 8 grados.
2. Calidad del aire: Filtra contaminantes y partículas finas, actuando como un purificador natural.
3. Salud mental: Proporciona refugios climáticos y espacios de relax que reducen el estrés de la población.
4. Biodiversidad: Crea hábitats para aves e insectos, equilibrando el ecosistema urbano.

Bajo este nuevo modelo, los árboles dejarán de ser un mero elemento ornamental para convertirse en una herramienta estratégica. El objetivo principal es mejorar la calidad de vida de la ciudadanía, otorgando al arbolado funciones claras para promover el bienestar y la salud ambiental.



Joxe Mari y Maritxu serán los nombres de los gigantes

Para todas las personas que han participado, hay un regalo por haber participado, hay que ir a recogerlo a la biblioteca

En la selección de nombres de los gigantes se ha obtenido el siguiente resultado (selección de propuestas de nombres).

PARA EL HOMBRE:

EUXEBIO: 49

JOXEPE: 24

JOXE RAMON: 28

JOXE MARI: 54

PARA LA MUJER:

INAXI: 20

XIXILI: 28

KONTXEZI: 8

MARITXU: 99

Han votado 155 personas por 4 nombres de cada uno de los más propuestos anteriormente.

En la propuesta de nombres participaron 167 personas.

Para todas las personas que han participado, hay un regalo por haber participado. Hay que venir a recogerlo a la biblioteca.



El Ayuntamiento de Mendaro distribuirá folletos informativos, manteles de papel y carteles en comercios, bares y establecimientos hosteleros dentro de la campaña *Bertatik Bertara*, organizada por UEMA

*El Ayuntamiento de Mendaro se ha adherido un año más a la campaña **Bertatik Bertara** organizada por UEMA (Mancomunidad de Municipios Euskaldunes)*

Con esta campaña se pretende impulsar **dos objetivos** principales:

- Animamos a los hosteleros, taberneros y clientes de la localidad a que **utilicen más el euskera.**
- Animamos a los visitantes que vengan al pueblo a **disfrutar en euskera.**

El servicio que usted ofrece es también en gran medida un escaparate del euskera, por lo que le animamos a participar en este proyecto. Y, para ello, **¿qué podemos hacer?**

- **Utilizar los mantelitos individuales de papel** que se han preparado para la campaña a la hora de administrarlos.
- **Utiliza el euskera** en los elementos del paisaje lingüístico que utilices en tu establecimiento (**carteles, menú, horario, música...**).
- Fomentar, en la medida de lo posible, **el uso oral del euskera en la prestación del servicio.**

Sin otro particular, te agradezco tu colaboración en este proyecto.



El huerto escolar ya está en marcha

Los trabajos realizados hasta el momento son los siguientes:

| EGUNA | TALDEA | ZEREGINA |
|--------------------|--------|--|
| 2026-03-09 (14:30) | LH2 | Fertilizar la tierra, remover. |
| 2026-03-13 (11:30) | LH3 | Arrancar la tierra, plantar cebollas rojas, blancas y lechugas, plantar flores con olor, replantar fresas... |
| 2026-03-13 (14:30) | LH1 | Remover la tierra, plantar flores con olor y sembrar patata |
| 2026-03-18 (14:30) | HH5 | Sembrar semillas de guisantes, replantar fresas y fertilizar limoneros. |
| 2026-03-23 (14:30) | HH4 | Sembrar zanahorias, perejil y pipas de carlina. Plantar el kumquat en el suelo. |
| 2026-04-15 (14:30) | HH3 | Sembrar maíz y plantar en el semillero plantas de guisantes que germinaron. |
| 2026-04-22 (14:30) | LH4B | Sembrar maíz en el semillero. Remover la tierra, plantar bayas y sembrar calabaza. |